

BESTELAKO XEDAPENAK

ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

3285

EBAZPENA, 2026ko uztailaren 9koa, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2025eko urriaren 7ko Aginduaren babesean 2025eko ekitaldian emandako dirulaguntzen onuradunen zerrenda. Agindu horren bidez, Animalien ongizatearen ziurtagiria lortzeko 2025eko dirulaguntzen deialdia egin zen.

Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2025eko urriaren 7ko Aginduaren bidez, Animalien ongizatearen ziurtagiria lortzeko dirulaguntzak emateko 2025eko deialdia egin zen.

Elikadura eta Landa Garapeneko sailburuordearen 2025eko abenduaren 17ko Ebazpenaren bidez, 2025eko urriaren 7ko Aginduaren babesean eskatutako dirulaguntzak eman ziren. Ebazpen horren berri eman zitzaien onuradun gisa agertzen ziren pertsona guztiei.

Errekurtsoak aurkezteko legezko epea igarota, aipatutako deialdiaren babesean emandako dirulaguntzen onuradunen zerrenda argitaratu behar da EHAA-n.

Azaldutakoa kontuan hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Ebazpen honen eranskinean argitaratzea, denek jakin dezaten, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2025eko urriaren 7ko Aginduaren babesean 2025eko ekitaldian emandako eta jasotako dirulaguntzen onuradunen zerrenda. Agindu horren bidez, Animalien ongizatearen ziurtagiria lortzeko 2025eko dirulaguntzen deialdia egin zen.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 9a.

Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendaria,
ONEKA ZABALLA GONZALEZ.

ERANSKINA

Hurrenkera zenbakia	Elkartea	Laguntzaren zenbatekoa (eurotan)
0001-CBA2025-WF	Euskaber, Koop. S.	10.224,20
0002-CBA2025-WF	Lactea de Balmaseda, S.L.	9.370,59
0003-CBA2025-WF	Corporación Ovo12, S. Coop.	8.197,29
0004-CBA2025-WF	SAT Valle de Karrantza	20.970,86
0005-CBA2025-WF	Iparlat, S.A.	50.000